

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua funtziona dezan, elementuak eta baliabideak aukeratzea funtsezkoa iruditzen zaigu. Enpresa baten funtsezko baliabideak honela banatzen dira: Baliabide fisikoak, baliabide intelektualak giza baliabideak eta finantza baliabideak. Gure kasuan giza baliabideak erabiliko ditugu batez ere, gizarte lana bermatzea delako gure helburu nagusietako bat. Aitortu beharra dago hobetzeko aukera beti presente izango dugula, hau da, gure baliabideak eta horien funtsezko ezaugarriak hobetzeko proposamenak jasoz gero aplikatuko ditugu. Gure baliabide nagusiak abilezia, kontaktuak eta esperientziak izango dira. Horrela, esperientzia duten langileak izanez gain, berriak diren pertsonak kontratatuko ditugu, aplikazio zein teknologietan irakaskuntza emanez eta horrela esperientzia handiko pertsonak bilakatu, etorkizunerako prestatzen ditugu.

Honako negozio-eredua entregatzeko, gure proiektuak hainbat baliabide erabiltzen ditu, esate baterako: Garrantzitsuena giza baliabideak dira, antolaketa ezagutzak etab. Hauek hartuko ditugu kontuan. Gainera publizitate eta marketin egokia sustatuko dugu, gure proiektua arrakasta izan dezan. Horretarako, baliabide teknologikoak zein fisikoak baliagarriak eta garrantzitsuak dira proiektu honetan. Gure ideiak argi izango ditugu, gure helburuak lortzeko. Horretarako, konfiantza ezinbesteko faktore bat izango da eta eragozpen baten aurrean denbora gehiago eskainiko diogu negoziatioei eta noski, komunikazioa langileen artean funtsezkoa izango da. Hortaz, aplikazioaren ibilbide guztian aktualizatuta egongo gara, hau da, berriak presente izango ditugu eta edozein aldatetari aurre egiteko prest egongo gara. Ondorioz, esan dezakegu talde lana eta banakako lana oso garrantzitsuak izango direla gure proiektuan eta hauek konfiantza eta dibertsitatea izatea beharrezkoa izango da, horrela, gure proiektuak arrakasta izango du.